

DIRU-ITURRIAK

Gure proiektuak gastu handi bat dakarrenez, proiektua martxan jarri al izateko, lendabizi, mailegu bat eskatuko diogu bankuari. Proiektua aurrera eraman ahal izateko autoak erosi beharko ditugu eta hauen kostua altua da, gainera ez dugu kotxe bat soilik erosiko, bat baina gehiago baizik eta hauek erosi ahal izateko ez daukagu dirurik, gero denborarekin, proiektua aurrera doan einean eta diru pixka bat pilatzen dugunean dirua itzultzen joango gara.

Oraindik ez dakigu zenbateko mailegua eskatuko dugun, baina argi dago ez dela kantitate txikia izango, auto batek 20000€ inguruko kostua izango du eta hasieran gutxienez 10 bat auto erosiko ditugu beraz, autoetan soilik 200000€ beharko ditugu. Autoez gain beste hainbat gastu izango ditugu, langileek lan egingo dugun lokal bat, autoentzat geltokiak... guztira bataz beste 500000€ inguru beharko ditugu.

Diru gehien, gure bezeroei esker lortuko dugu baina horretaz gain hainbat diru-laguntza ere jasoko ditugu, honi esker mailegua itzultzeko nahikoa diru kantitate ateratzea aurreikusten dugu, ala ere badakigu proiektuak gaizki ateratzeko aukerak dituela, eta hau horrela izanez gero diru dexente galduko genukela.